

23. zk.

LABURPENA

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2020

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo



Lan hau Creative Commons
Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0) lizentziapean dago

Lizentziaren kopia bat ikusteko **sartu hemen**

ARARTEKO

Vitoria-Gasteiz, 2021

Diseinua, maketazioa eta imprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 2255-4912

www.ararteko.eus

AURKIBIDEA

00. Aurkezpena	2
01. Arartekoaren jarduera zenbakitan	4
02. Jarduerak	6
03. Gomendio orokorrak	20
04. Erakunde adierazpenak	24
05. Beste jarduera batzuk	26
06. Haur eta nerabeentzako bulegoa	28
Informazio interesgarria	30



Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

“Ikasi nuen adorea ez zela beldurrik eza, baizik eta hari nagusitzea. Adoretsua ez da beldurrik sentitzen ez duena, beldur hori garaitzen duena baizik.

-Nelson Mandela.

2020 urte berezia izan da, argi-itzalez betea, batez ere sufrimenduzkoa norberaren eta planeta osoaren osasunagatik, baina baita kemenezko eta elkartasunezkoa ere. Ataka larrian jarri dira egungo gizarteko bizimoduaren oinarrian ziurtzat jotzen ziren gauza asko.

Erakundeen (Arartekoa barne) eta administrazio publikoen jarduerak ere eragina jasan du 2020ko martxoaren 11tik aurrera Osasunaren Mundu Erakundeak pandemiatzat jo zuenean COVID-19ak sortutako osasun publikoaren larrialdi-egoera, eta herrialde guztiei eskatu zienean abiarazi eta gehitu zitzatela larrialdiei erantzuteko tresna guztiak.

Konfinamenduak eta beharrezkoak ez ziren jarduera guztien itxiera ekarri zuten esparru-erabaki horien ondorioz, eragin edo murrizketa garrantzitsu eta askotarikoak izan dituzte herritarren eskubideek, norberaren eta erkidegoaren osasuna babeste aldera. Geroago, Estatuko administrazioak eta euskal administrazioek etengabe erabakiak hartu behar izan dituzte konfinamendua arintzeaz, “normaltasun berria”z eta izurriaren elkarren segidako olatuez, osasun-, lan- eta gizarte-neurriak ziurtatu nahi baitzituzten, batera gertatzen ziren eskubideak haztatuz, pertsonak babestu ahal izateko, batik bat kalteberenak.

Erakunde honek martxoaren 16tik bertatik abiarazi zuen bere kontingentzia-plana, bere bulegoak ixtea erabaki zuen eta oinarizko zerbitzuak egiteko funtsezkoak ziren langileak zehaztu zituen. Hartutako neurrien artean, bitartekoak jarri ziren, telematikoki bazen ere (telefonoz eta *online*), eman dizkiguten eginkizunak betetzen jarraitu ahal izateko –ezin saihestuzko murrizketekin izan arren, batez ere herritarren eskaerei erantzuteko orduan.

Harreman horri esker jakin dugu administrazio publikoak, gobernu maila guztietan (Estatua, autonomia erkidegoa, foru aldundiak eta udalak) ezohiko egoeren mende egon direla COVID-19aren krisialdian, beren erreakzionatzeko ahalmena erabili behar izan dutela berehalako egoera ezezagun horren aurrean, eta,

normalean, erantzun azkarra eman dietela herritarren oinarizko zerbitzuak artatzeari (osasuna, gizarte-zerbitzuak, segurtasuna, garraioa, hondakinen bilketa, eta abar). Bereziki gogorra izan da Osakidetzan eta hirugarren adinekoen egoitzetan bizitako egoera. Udalaren oinarizko gizarte-zerbitzuak ere erreferentzia izan dira gizarte-premiak dituzten pertsonentzat.

Orobat, lehen lerrotik ikusi dugu herritarrek zailtasun itzelei egin behar izan dietela aurre. 9.800dik gora jarduera egin dira herritarrek artatzeko eta administrazioak kontrolatzeko. Kexak eta kontsultak jaso ditugu hainbat sistema publikori buruz: osasuna, segurtasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-prestazioak, e.a.

2020an 2.500dik gora kexa-espeditente izapidetu dira. Horietatik %10ek baino gehiagok nolabaiteko zerikusia zuten COVID-19arekin, baina modu dibertsifikatuan.

Bere eginkizunak betetzeko orduan, erakunde honek egiaztatu du zeharkako elementu bat dagoela jasotako kexa askotan: herritarrek arazo izugarriak izan dituztela administrazio publikoekin harremanetan jartzeko. Horregatik gomendio orokor bat egin genuen, epe laburrean zer neurri zuzentzaile proposa daitezkeen azalduz, hobetzeko asmo bakarrekin.

Amaitzeko, biziki eta benetan eskertzen diet osasun-sistemako partaide guztiei, gizarte- eta osasun-eremuko, hirugarren sektoreko erakundeetako kideei, funtsezko jardueretan lan egiten dutenei eta beste zenbait pertsona goresgarriari, bada, beraien osasuna arriskuan jarritz, modu nekaezinean dihardute, norberaren konpromiso eta ardura ikaragarriarekin, izurriaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin eta gure bizitzetan aurrera egin ahal izan dezagun. Era berean, eskerrona aitortu behar zaie hainbat eta hainbat pertsonari, beren egoerak gaindituz erakutsi duten elkartasunagatik, eredugarri baitira etorkizun hobean itxaropena izan dezagun. Izan ere, Daniel Golemanek esan zuenez, “Itxaropenak esan nahi du norberak ez diola antsietateari, ezkortasunari edo depresioari amore ematen arazoak eta eragozpenak aurkitzen dituenen”.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN BULEGOAREN JARDUERA, ZENBAKĪTAN


Aurrez aurreko kexak eta kontsultak gutxitu egin dira, konfinamendu-aldian herritarrentzako arreta-bulegoak itxi egin zirelako. Nahiz eta etengabe mantendu dugun telefono bidezko arreta, baita konfinamendu-aldi horretan ere, gutxitu egin da telefono bidezko kontsulten kopurua. Aitzitik, igo egin dira ofiziozko espedienteen irekitzeak eta igorritako gomendio orokorren kopurua.

Hala, 2020an zehar, **9.826 jarduketa** egin dira guztira; horietatik, **6.437 kexei eta kontsultei dagozkie** eta 30 ofiziozko espedientei (arropa, gizarteratzeari, Haur eta Nerabeentzako Bulegoari, ingurumenari eta segurtasunari dagozkionak nabarmentzen dira).

Herritarrentzako arreta bulegoetan, guztira, 7.064 zerbitzu eman ditugu. Horietatik, 3.882 hiru bulegoetako batean aurrez aurre aurkezturiko kexak eta kontsultak izan dira, eta 3.182 baino gehiago zerbitzu telefoniko bidezko aholkularitza eta informazioa jasotzeko egin dira.

2020an, 52 **bilera** egin ditugu gizarte-erakundekin eta 49 administrazio desberdinekin: Eusko Jaur-laritzako sailak eta zuzendaritzak, foru aldundiak, udalak eta beste erakunde batzuk. Era berean, administrazio, gizarte-organizazio eta aholkularitzek sustaturiko estatu- eta erkidego-mailako 87 ekintza eta jardunalditan hartu dugu parte, eta nazioarteko beste 20tan.

Arartekoari 2020an egindako kexak eta kontsultak



Arartekoaren jarduera guztiak 2020an

Kexak	6.437
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	3.182
Kanpoko jardueretan parte hartzea	87
Laneko bilerak gizarte erakundeekin	52
Laneko bilerak administrazioekin	49
Nazioarteko eta beste defentsa-erakunde batzuekiko jarduerak	11
Gomendio orokorrak	6
Txosten bereziak eta azterlanak	1
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	1
Guztira	9.826

Hain zuzen ere, pandemia geldiarazteko harturiko neurriak direla eta, ezinezkoa izan da guretzat mota ezberdinetako adingabeentzako egoitza-baliabideetara eta Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren komisarrietara (besteak beste) aurreko urteetan egin ohi izan ditugun ikuskapen-bisitak egitea.

2020an, **2.061 kexa-espeditente** ebatzi dira, eta **1.432 ebazpen** eman dira. Gainerako kasuetan, erabaki da kexak behingoan ez onartzea, bikoiztuta zeudelako, beste herriaren defendatzaile batzuei aurkeztu zitzaizkien-eta; ebazpen judizialaren zain zeudelako edo epai irmoa zutelako; auzibidera jo zelako, eta abar. Kexa-prozeduren batez besteko iraupena 46 egun izan da.

Kexa-espeditente horiek aztertuta, ikusi dugu horien **%43an** ukitutako administrazioak **oker jardun** zuela; ehuneko hori aurreko urtekoa (%49) baino txikiagoa da. Kasuen %8an, ukitutako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna aldatu eta zuzendu egin du. Kasu gehienetan, Arartekoak ez du gomendio formala egin beharrik izan.

Kexek hizpide duten **gai-arloaren** arabera gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei loturiko erreklamazioak pixka bat handitu direla antzeman dugu: 497 (2019an 468 izan ziren). Kexa-espeditente horietatik, %88 inguruk **Lanbideren** funtzionamendu txarrarekin zerikusia daukaten arazoak dituzte hizpide, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzearen arloan burututako jarduerak ere.


Izapideturiko kexa-espeditenteen ia **%43ak** lotura dute **gizarte-eskubideekin (osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza eta abar)**.

Halaber, kexetako asko **arreta publikoko kolektibo**ei buruzkoak dira. Espediente horietako askok (gizarteratze arlokoak barne) pertsona guztien **berdintasun erreala eta eraginkorra** bermatzeko politika publikoekin zerikusia dute, eta horien helburua da emakumeek, adinekoek, haur eta nerabeek, ezgaitasunen bat duten pertsonak, LGTB kolektiboak, immigranteek, ijitoek eta abarrek eskubide hori baliatzeko dituzten eragozpenak desagerraraztea.

Administrazio bakoitzari eragiten dioten espedienteen proportzioari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea 2020an (ia %54), eta euskal udalen jarduerari buruzko kexak aldaketa handirik gabe mantentzen dira (%35). %10 inguruko foru aldundiei eragiten die.

Nolanahi ere, espedienteetan ukitutako administrazioen jardunak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta erreklamazioak beren jardueraren bat hizpide izan duela.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



● Eusko Jaurlaritza	%53,88
● Tokiko administrazioa	%35,34
● Foru administrazioa	%9,06
● Erakunde publikoak	%1,26
● Estatuko administrazioa	%0,29
● Justizia	%0,17

ASEBETETZE-MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bideari ekin genion, Arartekoaren esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini gabe, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioaren berri izan dezakegu.

Emaitzak baloratzeko orduan, kontuan izan behar dugu, 2020an izapidetzen amaitu dugun kexa guztietatik, soilik kasuen %43an jo dela ukitutako administrazioak oker jardun duela.

Arartekoaren langileek eskaintako arreta nola baloratzeko luketen galdetuta, herritarren %73k uste du **“arreta ona edo oso ona”** izan dela.


Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako izapideak), ia %67k baino gehiagok uste du oso positiboa edo positiboa izan dela.

Ia **%78k Arartekora jotzeko gomendioa** emango luke administrazioarekin edozein arazo izanez gero.

Gainera, azken urteotan Arartekoaren bi tresna giltzarriren inguruan galdetu dugu: **web orria**, gure zerbitzuei buruzko informazioarako eta herritarrekiko elkarrengainerako oinarrizko elementu gisa (erabiltzaileen %57k ezagutzen du), eta Arartekoaren **zerbitzuka**rtak, kalitateari buruzko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak biltzen dituena, baita horiek erabiltzeko modua ere (inkesta bete duten pertsonen %47k ezagutzen du). Inkestaren emaitzetan oso positiboki nabarmentzen da Arartekoan kudeaketak egiteko erraztasuna.

Emaitza hauekin ondoriozta dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzea (alegia, erakunde honen jardueraren eta baliabide pertsonalen mende dagoena) dakarten arloei buruzko iritzia aztertzen direnean, positiboa dela egindako lanaren inguruko balorazioa.

Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?





ETXEBIZITZA SAILAK BALIOGABETU EGIN DU GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA BAT ETXEBIDEREN ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO UKAPENA

Horrela, Etxebizitza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak onartu egin du Arartekoak luzatu zion gomendioa, babes-agindua indarrean zeukan genero-indarkeriaren biktima batek egindako erreklamazioa aztertu ondoren.

Kexagilea 2013. urtetik dibortziorako izapideak egiten ari zen bere bikote ohiarekin. Etxebiden izena emateko unean, genero-indarkeriaren biktima zela erakusten zuen egiaztagiri bat zeukan, eta indarrean zegoen babes-agindu bat, bere bikote ohiari bien etxebizitzan bizitzea galarazten ziona. Hala ere, bere bikote ohiaren arazo ekonomikoen ondorioz, hark agindu hura urratu eta familiaren etxebizitzan bizitzen jarri zen. Horregatik, eraso berriak saihesteko, emakumeak etxebizitza merkatu librean alokatzea erabaki zuen.

Orduan, kexagileak izapideak hasi zituen DSBE eta EPO prestazioak onar diezazkiten, bere udaletxeko oinarritzko gizarte-zerbitzuen laguntzarekin. Behin familiarena ez zen etxebizitza bat alokatzeko beharra egiaztatuta, bi aldiz egin zuen Etxebiden izena ema-

teko eskaera, baina Etxebizitza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak eskaera osatzeko galdegin zion, familiaren etxebizitzaren egoerari buruzko agiriak emanaz.

Une hartan 2014an sinaturiko hitzarmen arautzailea besterik ez zeukala adierazi zuen, baina hitzarmen hartan ezarritako baldintzak aldatzeko eskaera-idazkia eman zuen. Dena den, epaitegiaren azken erabakiaren zain zegoela jakinarazi zuen.

Azkenik, berriz adierazi zuen ezinezkoa zela familiaren etxebizitzan bizitzea, genero-indarkeriaren biktima zelako eta erasotzailea bertan bizi zelako.

Hala eta guztiz ere, Etxebizitza Sailaren Bizkaiko Lurralde ordezkariek ez zituen eskaerak onartu, interesdunak honako baldintza hau bete ez zuelako: eskaera egin aurreko bi urteetan etxebizitzarik ez izatea. Gainera, erabaki horren ondorioz, Lanbidek 3.800 euro inguru erreklamatu zizkion, izan ere, haren ustez, ez zituen betetzen EPO jasotzeko baldintzak, ez baitzegoen Etxebiden etenik gabe izena emanda.

Arartekoaren iritziz, kexagileak behar bezala egiaztatu zuen (epailearen epaia eta ezarritako babes-neurriak emanaz) ezinezkoa zela bere erasotzailearekin etxebizitza berean bizitzea. Horregatik, Eusko Jaurkitzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatu zion indarrrik gabe utz zezala Bizkaiko lurralde ordezkariearen erabakia, eta kexagileari alta eman diezaiola etxebizitza babestuen eskatzaile gisa 2018ko maiatzetik.

ARARTEKOAREN GOMENDIOARI JARRAIKI, ARABAKO FORU ALDUNDIAK KIROL FEDERAZIOAK KONTROLATZEKO NEURRIAK HARTUKO DITU, TRATU DESBERDINTASUNAK SAIHESTEKO UME ADOPTATUEN ARTEKO LIZENTZIAK IZAPIDETZEAN

Ume adoptatu baten amak diskriminatzailea iruditzen zitzaien egoera azaldu zion Arartekoari, izan ere, bere semeak adopzio bidez Espainiar nazionalitatea izan arren, atzerrian jaioa zenez gero, gainontzeko haurrek ez bezalako berariazko agiriak aurkeztu behar izan zituen Arabako Futbol Federazioan federatzeko.

FIFAk ezarritako prebentzio-neurri bat da hori, futbol elkarte handiek gehiegizko jarduerak burutu ez ditzaten. Hala ere, Arartekoak, horren antzeko zenbait kasu aztertu dituenaz, urtea joan eta urtea etorri kirol agintariei adierazten die saihestu egin behar dela neurri hori bereizi gabe aplikatzea gehiegizko jarduera horiekin zerikusirik ez duten kasuetan, umearen interes gorenari dagokionez funtzionala ez delako eta legez kontrakoa delako, ez baitira aintzat hartzen adopzioaren esanahi juridikoa eta horren ondorioak.

Halaxe gogorarazi zion Arabako Foru Aldundiari laguntza eskatu zionean, bada foru erakunde horri dagokio bere lurralde historikoko kirol federazioetan esku hartzea eta federazio-lizentziak izapidetzean haiek kontrolatzea.

Gainera, Kode Zibilaren 19.1 artikulua haxe ezartzen du: *“Espainiar batek adoptatzen badu hemezortzi urtekoa baino gazteagoa den adingabe atzerritarra, atzerritar horrek Espainiako jatorrizko naziokotasuna eskuratuko du adopzio-unetik”*.

Beraz, jaioterria alde batera utzita, atzerrian jaiotako ume adoptatua Espainian jaiotakoa bezain espainiarra da jatorriz, eta ezin da tratadesberdintasunik egin kirol lizentziak emateko orduan, batzuei eta besteei bereizitako agiriak eskatuz.

Horregatik, Arartekoak Arabako Foru Aldundiari gomendatu zion neurriak ezar zitzala Arabako kirol federazioek adopzio bidezko jatorrizko nazionalen Espainiako umei bezalako tratua eman diezaieten bermatzeko, agiri berberak eska diezazkietela kirol lizentziak izapidetzean eta kontrola dezala ez dela bestelako tratadesberdintasunik egiten.

Arabako Foru Aldundiak Arartekoari jakinarazi zionean, dagoeneko bidali zion idazki bat Arabako Futbol Federazioari, eta adierazi zion agiri osagarriak eskatzeko jarraibidea zuzendu behar duela, Espainiako ume adoptatuen kirol lizentziak izapidetzean.



ZIZURKILGO UDALAK BALIORIK GABE UTZI DU ETXEKO HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAREN ERABILTZAILEREN BATI JARRITAKO ISUNA

Horixe gomendatu zion Arartekoak, uste baitzuen herritarrari ez zitzaiola behar bezala jakinarazi zabor-poltsa hondakinak bereizi gabe botatzeagatik jarri zioten isuna

Herritarrak Zizurkilgo Udaleko Alkatetzaren ebazpen bat jaso zuen. Bertan jakinarazi zioten 90 euroko isuna jarri ziotela, zabor-poltsa kalean uzteagatik, hondakin desberdinak bereizi gabe eta udalerrian zaborrak biltzeko ezarritako sistema erabili gabe, izan ere, hondakinen artean, kexagilearen izenean zegoen erosketa-txartel bat aurkitu zuten.

Kexagileak errekurtsioa jarri zuen eta udalak ezetsi egin zuen. Errekurtsio hartan adierazi zuenez, ebazpena eman aurretik ez zuen jakinarazpenik jaso, eta horrek y babesgabetasuna sortu zion. Gainera, udalak ez omen zituen behar bezala egiaztatu leporatzen zizkion egintzak.

Kasu honetako agiri guztiak aztertu ondoren, ikusten da erabateko froga-balioa ematen zaion Udal-tzaingoaren aktan hauxe bakarrik agertzen zela: zabor-poltsa ireki baten argazkia, kale jakin batean, merkataritza-txartel batekin. Dirudienez, txartel hartan kexagilearen izena agertzen zen, baina ez zuten identifikatu lege-haustearen egilea, udaltzainek ez baitzuten gertatutakoa zuzenean ikusi.

Horrez gain, udalak espedientean idatziz jaso zuen kexagileak ez zuela jaso jakinarazpena, bi aldiz saiatu baziren ere. Behin egoera hori egiaztatuta, udalak zigortzeko espediente bat hasiko zuela jakinarazi behar zuen, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz, baina ez zuen halakorik egin.

Horregatik, Arartekoak udalari gomendatu zion baliorik gabe utz zezala isuna, ez baitzen behar bezala jakinarazi.



BALIOGABETU EGIN DU TE HERRITAR BATI JARRITAKO ISUNA. HARK DESGAIUENTZAKO TXARTELA ZEUKAN ARREN, ISUNA IPINI ZIOTEN LEGEZKO NEURRIAK BETETZEN EZ ZITUEN ERRESERBATUTAKO PLAZA BATEAN APARKATZEAGATIK

Gasteizko Udalak isuna ipini zion desgaiuentzako aparkatzeko txartela zeukan pertsona bati, bere ibilgailua "desgaiuentzako toki batean aparkatzeagatik eta zirkulazio-errei bat partzialki oztopatzeagatik".

Udaltzainaren salaketan zehaztu zenez, ibilgailua aparkalekuaren mugetatik kanpo aparkatuta zegoen eta pasadizo oztopatzen zien ibilgailu handiei.

Kexagileak onartu zuen bere ibilgailua erreserbatutako plazaren mugetatik kanpo aparkatuta zegoela, baina, hori justifikatzeko, adierazi zuen plaza hark ez zeuzkala legean ezarritako neurriak. Gainera, ukatu egin zuen bere ibilgailuak zirkulazioa oztopatzen zuenik. Bere esanean, egiaztatu egin zuen bere ibilgailuak ez ziela galtzadan pasadizo eragozten beste ibilgailu batzuei, ezta kamioiei ere; horren erakusgarri da ibilgailua ez zutela handik erretiratu.

Emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak Gasteizko Udalari helarazi zion kexaz egin zuen balorazioa.

Duda-mudazkoa da isuna jar ote dakiokkeen desgaiuentzako txartela daukan eta erreserbatutako leku batean aparkatzen duen pertsona bati, baldin eta isuna eragin duen egoera administrazio zigortzailearen legez kontrako jarduerak berak sortu badu. Izan ere, administrazioak irisgarritasun-araudia ez betetzearen ondorioz, azaldu duguna bezalako egoerak sor daitezke.

Horrez gain, nabarmendu behar da zer-nolako kaltea sor diezaiekeen desgaiuentzako legezko neurriak ez dauzkaten aparkaleku-plazak egoteak, desgaiuentzako taldea oso kaltebera baita eta horregatik erreserbatzen baitzaizkie aparkaleku horiek.

Gasteizko Udalak bere erantzunean jakinarazi digunez, isun hori balio gabetzea eta kexagileari ordaindutako dirukopurua itzultzea erabaki du. Gainera, desgaiuentzako aparkaleku-plaza guztiak berraztertuko omen ditu, tamainan, diseinuan, seinaleetan eta sarbidean arazorik ba ote dagoen ikusteko.

Arartekoak eskerrak eman dizkio Gasteizko Udalari bere laguntzagatik, izan ere, horri esker, espediente hau gomendiorik egin behar izan gabe konpondu da.



ARABA ESPETXEAN, EMAKUME PRESOEK HERRITAR LIBREEK BEZALAXE ESKURATU AHAL IZANGO DITUZTE FORU- BALIABIDEAK

Presoei laguntzeko elkarteak (ADAP) Arartekoari esku hartzeko eskatu zion, presoak etxebizitzetan hartzeko orduan Arabako Foru Aldundiak (AFA) onartu zituen aldaketa batzuk zirela eta.

ADAPek zioenez, 1996ko abendutik, Araba espetxe-ko emakume presoek laguntzeko etxebizitza kudeatzen du, Arabako Aldundiarekin sinaturiko hitzarmenaren bidez, izan ere, Aldundia oso sentikor agertu zen emakume horien arazoekiko, eta oso ondo jabetu zen haien bazterketa egoeraz eta desberdintasunaz, gizonezko presoekin alderatuta.

Baliabide horri esker, espetxetik atera daitezke bestelako harrera-baliabiderik ez duten emakumeak, bai beren espetxe-baimenak hartzeko, bai prestakuntzako edo laneko jardueretara joateko. Espetxe-zigorra duten emakumeak gizarteratzea errazten du, banakako arreta-plan osoen bitartez. Plan horiek arlo desberdinak hartzen dituzte bere baitan: pertsonala, soziala, prestakuntzako edo lanekoa, erkidegokoa, legezkoa, osasun arloa...

2019ko hasieran, Aldundiak ADAPi jakinarazi zion beste jarraibide bat onartu zuela: presoek etxebizitzetan eta beste foru-baliabide batzuetan egoitza-harrera jaso ahal izateko, egiaztatu egin beharko zela lurralde historiko horretan erroldatuta edo sustraituta egon izana espetxeratu aurreko aldirian, eta ez zela zenbatuko espetxean egindako errolda-denbora. Horren ondorioz, probintzia horretan sustraiturik ez zeudenek ezingo zituzten baliatu espetxeetako zenbait eskubide (adibidez, graduen progresioa askatasun-erregimenean edo baldintzapeko askatasuna),

ez baitzeukaten familiaren eta gizartearen laguntzarik, eta, une horretatik aurrera, ezta erakundeenik ere.

Gainera, adierazi zieten handik aurrera etxebizitza hura ez zela izango emakume presoentzat bakarrik, etorkizunean baztertutako beste emakume batzuei arreta emateko ere erabiliko zelako; horrek arriskuan jartzen zuen baliabidea bera.

ADAPen esanean, Aldundiak adierazi zion Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zorroa ezartzearen ondorioz egin zuela aldaketa, zorro horrek ez baitu aintzat hartzen presoek taldeari berariazko arreta ematea.

Arartekoak laguntza eskatu zion AFAko Gizarte Politiketako foru diputatuari. Gogorarazi zion presoengan normalean gizarte-bazterketako zenbait arrazoi batzen direla, eta horiei "espetxeratzea" bera gehitu behar zaiela: hau da, espetxean luzaroan egon izanak askatasunean bizitzeko eragiten duen andeatze-prozesua. Egintza horrek zaildu egiten du pertsona horiek gizarteratzea, are gehiago emakume presoak badira. Horregatik, oso ohikoa da espetxean aldi luzeak egin dituztenek sendeekin eta gizartearekin harremana haustea.

Orobat, adierazi zitzaion beste lurralde historiko batzuetan Gizarte Zerbitzuen Zorroa zentzurik mesedegarriean interpretatzen ari dela, presoek gizarteratzeko baliabideak eskuratu ahal izan ditzaten.

Arartekoak jakin duenez Arabako Foru Aldundiak aldatu egin du espetxean sartu aurreko aldirian erroldatuta egoteko baldintzari buruzko irizpidea, eta berriro onartu du Araba espetxe-errolda; horrez gain, etxebizitza horrek emakume presoentzako bakarrik izaten jarraituko du.

Arartekoak oso ontzat jo du AFAREN irizpide-aldaketa hori, izan ere, horri esker, emakume presoek herritar libreek bezalaxe eskuratu ahal izango dituzte Aldundiaren gizarteratze-baliabideak, eta generoagatik pairatzen duten bazterketa bikoitzaren katea moztu ahal izango dute.

ARARTEKOAK ESKU HARTU ONDOREN, BILBOKO UDALAK EZEZTATU EGIN DU TRAFIKOKO ISUN BAT, EGIAZTATU BAITU SALATUTAKO EGINTZA EZ ZETORRELA BAT ZIGORTUTAKO EGINTZAREKIN

Pertsona batek esku hartzeko eskatu zion Arartekoa-ri, Bilboko udaltzain batek bere ibilgailua salatu baitzuen, “espalo gainean aparkatzeagatik”. Kexagileak zioenez, ez zuen halakorik egin.

Haren esanean, ibilgailua salatu zutenean ez zegoen espalo gainean aparkatuta, baizik eta eremu pribatu batean, bere emazteak zuzentzen duen okindegi baten aurrean.

Gainera, herritarrak adierazi zuenez, salaketa egin zenean bera ibilgailu barruan zegoen, gidariaren eserlekuan jarrita, eta ez zen egia bera orduan ez zegoela ibilgailuan, udaltzain salatzaileak idatziz jaso zuen moduan, salaketa unean bertan ez jakinarazi izana justifikatzeko. Era berean, herritarrak zioenez, udaltzainak une hartan mugitzen ari zen polizia-ibilgailuaren barrutik jarri zuen salaketa.

Zigortzeko prozeduran, herritarrak azaldu zuen ez zegoela ados isunarekin, baina udalak ezetsi egin zituen haren alegazioak, oinarritzat hartu baitzuen espalo gainetik pasatu ahal izateko, ezinbestekoa dela hori baimentzen duen ibi-lizentzia izatea.

Kexagileak adierazi zigun ez zetorrela bat arrazoibide horrekin, izan ere, bere ustez, ez dira gauza bera espaloitik zirkulatzea eta espalo gainean aparkatzea. Eta azken ekintza horixe salatu zuen udaltzainak, eta horrexegatik hasi zen zigortzeko prozedura eta jarri zioten isuna bera.

Trafiko-arauak hausteagatik kexa horri erantzuteko asmoz, Arartekoak laguntza eskatu zion Bilboko Udalari.

Espedientea aztertu ostean, udalak jakinarazi zigun indarrak gabe utzi zuela isuna, egiaztatu baitzuen salatutako egintza (espaloitik zirkulatzea) ez zetorrela bat zigortutako egintzarekin, ezta ere arau-haustetzat identifikatu zenarekin (espaloian aparkatzea).



ARARTEKOAK ETXEBIZITZA SAILARI GOMENDATU DIO BERE GAIN HAR DEZALA JABEEN KOMUNITATE BATEN LEHENDAKARITZA, TXANDEN ARABERA HALA EGOKITZEN ZAIONEAN



Herritar batek Arartekora jo zuen, bada Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Alokabide sozietate publikoak uko egiten zioten, gutxienez 2016tik, bera bizi den jabeen komunitateko lehendakaritza hartzeari, txanden arabera hala zegokionean.

Adierazi zuenez, eraikina 8 etxebizitzak osatzen dute eta horietatik 5 sail horrenak dira eta Alokabideren bitartez kudeatzen dira.

Kexagilearen esanean, auzokoen artean larriagotu egin zen bizikidetzaz-azal eta txikizioak ohikoak ziren eremu komunetan. Izatez, hain zuzen ere lehendakariaren irudirik ez zegoelako ez omen ziren burutzen adostutako erreklamazio judizialak.

Arartekoak sail horri eskatu zion txosten bat presta zezala eta bertan azal zezala zer arrazoi juridiko zeuden komunitateko lehendakaritza ez hartzeko, izan ere, Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, komunitateko presidentea jabeen artean izendatuko dute, hura hautatuz edo txandaka edo zozketa bidez. Izendapen hori nahitaezkoa da, baina izendatutako jabeak ordeztu dezaten eska diezaioke dagokion epaile zibilarri.

Arartekoaren iritziz, ez dago inolako lege-aurreikuspenik Etxebizitza Sailari, egoki deritzon moduan, jabeen komunitateko lehendakaritza hartzea eragozten dionik. Horregatik, Jabetza Horizontalari buruzko Legetik eratorritako betebeharrak bete ditzan gomendatu dio.

ARARTEKOAREN USTEZ, NEURRIGABEA DA INDARREKO NORTASUN AGIRIA EZ AURKEZTEAGATIK ETXEBIDEN IZENA EMATEKO BALDINTZAK GERORA EZ DIRELA BETE USTE IZATEA



Herritar batek Arartekoari azaldu zion ez zegoela ados "Etxebide" etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroan berari baja eman izanarekin. 2014ko uztailetik zegoen erregistro horretan alta hartuta, errentamendu erregimeneko etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa.

Izen-ematea berritzeko eskatu zuenean, 2018ko urtarrilean, Etxebizitza Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak NANaren fotokopia eskatu zion, baita Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatuta egotearen ziurtagiria ere.

Europar Batasuneko herritarren erregistroko ziurtagiriaren kopia bat eman zuten, Atzerritarren Erregistro Nagusiak egindakoa, non berariaz ziurtatu baitzen kexagilea egoera honetan zegoela: "*Residente comunitario permanente en España desde 2/6/2006*". Gainera, Portugaleko nortasun agiri nazionalaren kopia bat eman zuten, nahiz eta une hartan iraungita egon.

Etxebizitzako lurralde ordezkaririk erregistroan baja ematea erabaki zuten, bere ustez gerora ez zirelako bete etxebizitza-eskatzaileen erregistroan izena emateko baldintzak, kexagileak indarrean zegoen nortasun agiria eman behar zuelako.

Beraz, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ere etetea erabaki zuten, eta

oker jasotako kopuruak itzultzeko betebeharra adierazi zuten.

Etxebiden izena emateko berriz eskatu ondoren, erregistro horrek ostera alta eman zion etxebizitza-eskatzaile gisa, baina hasierako espedientearen zuzen antzintasuna galdu zuten.

Arartekoaren iritziz, neurrigabea da indarreko nortasun agiria ez aurkezteagatik gerora baldintzak ez direla bete uste izatea.

Gure ustez, herritarrak agiri nahikoak eman zituen bere nortasuna egiaztatzeko. Portugaleko nortasun agiria iraungita aurkeztu zuenean, Europar Batasuneko herritarren erregistroko ziurtagiriarekin batera, berriro eskatu behar zioten agiri hura, nortasun agiria iraungita zegoela eta berrituta aurkeztu behar zuela zehaztuz. Hala, arazoa erraz konpondu ahal izango zen.

Horregatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari eskatu zion berriz azter zezala espediente hura eta kexagileari etxebizitza-eskatzaile gisa zuten antzintasuna onar diezaiola.

Sail horrek erantzun zuten ez datorrela bat Arartekoaren azterketarekin, eta herritarrak indarreko nortasun agiria aurkeztu behar zuela adierazi zuten berriro.

ARARTEKOAK GASTEIZKO UDALARI GOMENDATU DIO INDARRIK GABE UTZ DEZALA GIDARI BATI KONTRAKO NORANZKOAN ZIRKULATZEAGATIK JARRI ZION ISUNA

Herritar batek kexa egin zion Arartekoari, Gasteizko Udalak “ezarritakoaren kontrako noranzkoan zirkulatzeagatik” 500 euroko isuna ezarri ziolako eta 6 puntu kendu zizkiolako”.

Kexagileak zioenez, bere bizilekutik Mendizorrotza kiroldegiko aparkalekura zihoala, bere ibilbidetik desbideratu zuten, lasterketa bat egiten ari zelako, eta beste bide batzuetatik gidatu zuten, batzuetan Udaltzaingoak eta beste batzuetan lasterketa zainzen ari ziren zerbitzuek.

Joan-etorri ugariaren ostean, toki berera iritsi omen zen bi aldiz, eta azkenean Aretxabaletako inguruan amaitu omen zuen. Udaltzaingoaren eta lasterketa zaintzeko zerbitzuen jarraibideei jarraiki, une jakin batean, bide batean hamabi auto -besteak beste, berea eta hainbat moto ilaran zirkulatzen ari omen ziren, kontrako noranzkoan.

Ibilgailu horiek Mendizorrotzako atzealdeko errotonda batera iritsi zirenean, bi udaltzainekin topo egin omen zuten, eta haiek desbideratzeko agindu omen zieten, Gorputz Hezkuntzako Euskal Erakundearen aparkalekuko kanpoaldean sartzeko. Batzuek hala egin omen zuten, eta gainontzekoek Lasarterantz jarraitu omen zuten.

Kexagilearen esanean, udaltzainek, oso zakar, beraien azalpenak entzun gabe eta kontuan hartu gabe hainbeste ibilgailu aldi berean debekatutako noranzkoan zirkulatzen ari zirela, ohi ez bezala, auto-gidariei ahoz esan zieten salatu egingo zituztela egintza horregatik.

Egoera ezohikoa zenez gero eta babesik gabe sentitu zenez gero, 010 telefonora deitu zuen, gertatzen ari zenaren berri emateko, eta zenbait alegazio egin zizkion udalari, baina haiek balioetsi gabe ezezi zituzten. Gainera, bera salatu zuen udaltzainak ez zion jakinarazi salaketa une hartan bertan, ezta geroago ere.

Arartekoak informazioa eskatu zion udalari, baina hark ez du eman kexagilearen bertsioa zalantzan jartzeko elementurik.

Horregatik, Arartekoak Gasteizko Udalari gomendatu zion indarrik gabe utz dezala isun hori, eta berriz azter dezala egoera berean eta arrazoi berregatik gainontzeko ibilgailuen gidariei jarri zitzaizkienak.

ARARTEKOAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI ESKATU DIO BALIOETSI DEZALA LOGOPEDA LANPOSTUA ESKURATU NAHI ZUEN PERTSONA BATEK ARRETA GOIZTIARREAN ALEGATUTAKO LAN-ESKARMENTUA

Pertsona batek Arartekoari azaldu zion ez zegoela konforme Bizkaiko Foru Aldundiaren jokaerarekin, foru administrazio horrekin itundutako zentroetan arreta goiztiarrean logopeda-zerbitzuak emateko egin zituen ahaleginak zirela eta.

Pertsona horrek Fonoaudiologiako titulua zuen, atzerriko unibertsitate batek 2019ko uztailan emana, eta logopeda lanbidean aritzeko gaitzen duen Espainiako graduako unibertsitate-tituluarekin homologatua, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak emandako ziurtagiriak bermatzen zuen moduan.

Era berean, bazituen bere jatorrizko herrialdean titulua lortu ondoren izan zuen eskarmentuaren ziurtagiriak ere.

Homologazioa lortu eta gero, kexagileak hainbat lan-eskaintza jaso zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren arreta goiztiarreko zentro itunduetan jarduteko; horregatik, beharrezko izapideak eta kontsultak egin ziren administrazio horrekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak berak Arartekoari jakinarazi zionez, 2019ko abenduan, zentro horietako bateko arduradunak idazki bat igorri zuen Gizarte Ekintzako Foru Departamentuko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuari, pertsona horri zentro hartan alta eman diezaioten eskatzeko, logopedaren lanbide kategoriarekin.

Zerbitzuak, ordea, erantzun zuen ez zituela baldintzak betetzen, eta interesdunak beste idazki bat aurkeztu zuen, bere lan-aurrekariak berriz azter zitzaten eskatzeko.

Erantzunean adierazi zioten ez zela egiaztatuta geratu arreta goiztiarreko prestakuntza edo eskarmentu espezializatuari zegozkion eskakizunak betetzen zituenik, ez baitzegoen inolako agiriarik arlo horretan alegatutako lan-eskarmentua homologatu zela ziurtatzen zuenik, eskarmentua titulua homologatu baino lehenagokoa baitzen.

Hala ere, dekretuak ez du eskatzen atzerriko titulu bat homologatu duten pertsonen kasuan lanbide-eskarmentuak homologazioaren ondorengoa izan behar duenik.

Horregatik, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatu zion ikuspuntu materialetik begiratuta balioetsi dezala logopeda lanpostua eskuratu nahi duen interesdun horrek arreta goiztiarrean alegatu duen lan-eskarmentua.



ARARTEKOAK ARRASATEKO UDALARI GOMENDATU DIO NEURRIAK HAR DITZALA AZOKA EGUNETAN GAUEZ ZAMALANEK SORTZEN DITUZTEN ERAGOZPENAK SAIHESTEKO

Arrasateko bizilagun batzuk 2018. urteaz geroztik salatzen ari dira beren etxebizitzaren inguruan zarata-eragozpen larriak sortzen dituztela, gauez, astean bi aldiz azokara joaten diren saltzaile ibiltariak beraien kamioi eta furgonetekin egiten dituzten zamalanek. Jasanezinak omen dira kolpeek eta dardarek eragindako zaratak.

Dirudenez, saltzaileek salgaiak furgoneta eta kamioi txikietan eramaten dituzte eta horiek inguru horretan aparkatzen dituzte. 5:00-5:30ak aldera, kalean deskargatzen dituzte beraien produktuak, beren etxebizitzaren azpian, eta azokara eramaten dituzte saltzeko. Jarduera eta joan-etorri horiek soinu-eragin larriak sortzen dituzte inguruan, beren etxebizitzetara iristen dira eta bizilagunei ez diete atsedean hartzen uzten.

Haien esanean, salaketa ugari egin zizkieten udalari eta hainbat bilera egin zituzten udal arduradunekin. Zaratari buruzko araudiak etxebizitzaren eremuetarako ezartzen dituen hots-mailak errespetatu daitezkeen berma dadin ere eskatu zuten, eta zamalan horiek eguneko orduetara atzera daitezela, gehiegizko zaratak gauez sortzen dituen eragozpenak gutxitzeko.

Hala ere, ez omen zuten gogobetetzeko moduko emaitzarik jaso, ezta berariazko erantzunik ere egin dituzten erreklamazio anitzen gainean.

Adierazi behar da Arartekoak lehen ere bi kexa-espediente izapidetu zituela gai berberaz. Bi kasu haietan, udalak inguruan sortutako eragin akustikoa zuzentzeko neurriak adostu zituenez gero, Arartekoak bere jarduera eten zuen, kexan azaldutako arazoa behar bezala bideratuta zegoelakoan.

Hala eta guztiz ere, kexagileek salaketak jartzen jarraitzen dute, gauez oraindik ere pairatzen ari diren zarata-eragozpen larriengatik. Beraien etxebizitzetan jasaten duten kutsadura akustiko horrek galarazi egiten die atsedena, eta izugarri eragiten du euren bizikaltatean.

Horregatik, Arartekoak Arrasateko Udalari gomendatu zion ikuska zezala salatutako zamalanek sortzen duten hots-maila, eta beharrezko neurriak har ditzala etxebizitzaren inguruko araudian ezarritako gehienezko mugak gainditzen dituzten immisio akustikoetatik babestuta egongo direla bermatzeko. Gomendioa onartu egin du Udalak.

ARARTEKOAK ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILARI GOMENDATU DIO PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASO ETA MANTENTZEKO ORDUAN, BEHAR BEZALA HAZTA DEZALA EMAKUME BATZUEK NOZITZEN DUTEN GENERO-INDARKERIAZKO EGOERA

Azken urteotan Arartekoak kexa asko izapidetu ditu Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzeko eskubidea eten, amaitu, ukatu edo ez berritzeaz buruz. Izan ere, Lanbidek, prestazio horiek jasotzeko eskubidea izan eta mantendu ahal izateko, modu hedagarrian interpretatzen du “*eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko*” baldintza eta betebeharra (araudian xedatutakoa) ez betetzea.

Bizikidetzaren unitate gehienak guraso bakarrekoak dira, umeak dituzte beren ardurapean, judizialki ezarritako neurriak dituzte gurasoen eta seme-alaben artean, baina neurri horiek ez dira bete. Orobat, zailtasun handiak dituzte oinarriko beharrak asetzeko, pobrezia pairatzeko arriskurik handiena duten biztanle-taldeetako bat baitira, beste gurasoak ez dizkielako ordaintzen mantenu-pentsioak.

Arartekoak honako arazo hau ikusi du kexa horiek izapidetzean: DSBE/EPO jasotzen duten emakumeei Lanbidek eskatzen die epaitegietan sala dezatela, behin eta berriz, beste gurasoak mantenu-pentsioak ez ordaindu izana.

Lanbideren iritziz, mantenu-pentsioa ez erreklamatzeko berekin dakar “*eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazte*”ko baldintza eta betebeharra ez betetzea, eta ez ditu kontuan hartzen beste inguruabar garrantzitsu batzuk, prozedura judizialari dagozkionak.

Arartekoari aipagarriak iruditzen zaizkio, beste kasu batzuen aldean, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kasuak, edo genero-indarkeria pairatu izanaren egiaztagiria dituztenenak, tartean baitaude babes-aginduak, Ministerio fiskalaren kalifikazioa edo egoera hori egiaztatzen duten epaiak.

Horregatik, bere ustez, berdintasunaren arloko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko arau-esparrua aipatu behar da, premisa gisa, DSBE/EPO prestazioak erregulatzen dituen araudia aplikatzerakoan interpretazio egokiagoa proposatzeko, kontuan hartuta botere publikoek tratatu berezia eman behar dietela edonolako indarkeria matxista jasan duten edo/eta jasaten ari diren emakumeei.



Hau da, funtsezkoa da zerbitzu publikoek emakume horiei eta beren seme-alabei emandako arretaren eta laguntzaren giltza beraien giza eskubideak defendatzea izatea, beraien segurtasuna babestea, eta ez egotea ustezko erasotzailearen kontra lege-ekintzak hastearen mende.

Arartekoaren aburuz, aintzat hartu behar da kalteberatasun egoera larriengan dauden familia horien pobrezia-arriskua, baita ere biktima horiek alferrik arriskuan jartzen dituztela, eskatzen baitzaie ordaindu gabeko mantenu-pentsioak betearazteko auzi-eskeak jar ditzatela, behin eta berriz, indarkeria matxista dagoen egoeretan.

Horregatik guztiatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio bizikidetzaren unitatean genero-indarkeria baldin badago, behar bezala hazta dadila zer oreka dagoen arriskuaren eta ordaindu gabeko mantenu-pentsioa betearazteko auzi-eskearen eraginkortasunaren artean, baita “*eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko*” baldintza interpretatzeko orduan ere. Horrez gain, gizarte-zerbitzuekin beharrezko koordinazio-neurriak abiaraz ditzan eta horietan genero ikuspegia aintzat har dadin eskatu dio. Ez dute gomendioa onartu.

OFIZIOZKO JARDUNAK

Herritarren keak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, **bere ekimenez**, hainbat gai ikertzeari ekin dio: Batzuetan, euskal herri-administrazioen batean jardun irregularrak izan daitezkeela irizten da; beste batzuetan, berriz, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera dago.



2020an hasitako edo amaitutako ofiziozko jardunen artean, azpimarratzekoak dira **Lanbidek eman dituen ebazpenen jakinarazpenak** prestazio batzuen erreklamazio-prozeduren inguruan. Honen xedea hauxe izan da: aztertzea ea Lanbidek behar bezala jakinarazi ote dituen titular izateari utzi dioten prestazioen pertsonak bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozeduraren faseak. Horretarako, erakunde honi beharrezkoa iruditu zaio alde zuzenetik zehaztea Lanbidek nahikoa informazio eman ote dien diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei, bai harreman juridikoa iraungi ondoren espedienteak berrikusteko aukerari buruz, baita egoitza-aldaketak jakinarazteko betebeharrari buruz ere. Adierazi beharra dago gaur egun prestazioak eteteko, iraungitzeko edo ez berritzeko ebazpenetan jasotzen den informazioa askoz argigarriagoa dela.



Zenbait keka jaso ostean, Arartekoak ofiziozko beste jardun bat hasi zuen Lanbidek titularrei diru-sarrerak bermatzeko errenta eta prestazio osagarriak iraungitzeagatik, lanpostu baterako **hautaketa pertsonalerako prozesuetan parte hartzea** onartzeko betebeharra ez betetzeagatik edota eskaintako enplegu bati uko egiteagatik, proposamena telefonoz egindako kasuetan. Kasu horietan, prozeduran gabezia batzuk antzeman ziren: ez zen elkarrizketaren edukia erregistratzen, ez zen Lanbidek jakinarazitakoa jasota geratzen, eta hortaz, ez zen administrazio-espedienteetan sartzen. Horregatik, Arartekoak gomendatu zuen Lanbidek jakinarazpena modu bermatzailean egitea. Arartekoak informazio hau landu zuen egunean ez zuen oraindik erantzun formalik jaso.



2020an, Arartekoak 2018ko udan **iraganbidean zeuden migratzaileen** etorrerarekin lotutako ofiziozko jarduna amaitu zuen. Momentu hartan, zenbait herritar-plataformaren eta gizarte-erakunderen keak jaso ziren. Erakunde horiek adierazi zuten kezkatuta zeudela Andaluziako kostaldetik EAera zetozen inmigranteen premia- eta zaugarritasun-egoeragatik, beste batzuetan baino askoz lagun gehiago iristen ari ziren eta. Informazioa bildu ostean eta hainbat instituzio eta gizarte-eragilerekin batzartu ondoren, Arartekoak zenbait ondorio atera zuen gogoeta eragiteko helburuarekin. Azpimarratzekoa da euskal gizartearen solidaritatea, Espainiako Gobernuaren koordinazio falta, eskumenen markoen argitasunaren beharra eta konstituzioaren markoa errespetatuz euskal agenda politikoan sartzea. Arartekoaren aburuz, ez da fenomeno iragankor bat, baizik eta egiturazkoa. Hortaz, zeharkako erantzun estrategikoak ekarri behar dira aurretik sumatu ezin den dimentsio sozialeko gertara bati aurre egiteko, eta horren mende dago gizarteak giza eskubideak errespetatzea.



ARARTEKOAREN JARDUKETAK COVID-19AREN KRISIAN

2020ko martxoan osasun-larrialdia eta alarma-egoera adierazi zirenetik, COVID-19aren krisiari buruzko hainbat kexa eta kontsulta jaso ditu Arartekoak.

Konfinamenduaren garaian, Arartekoak bere bulegoen aurrez aurreko arreta eten zuen Gasteizen, Bilbon eta Donostian, baina erakundearen funtzionamendua bermatu zen langile ia guztiak etxetik telelanean arituz. Hala, herritarrek beren kexak eta kontsultak aurkezten jarraitu ahal izan zuten posta elektronikoa (arartekoa@ararteko.eus), posta edo telefonoa baliatuz.

Hona hemen Arartekoak COVID-19aren krisia dela eta egindako esku-hartze batzuk:

Osasuna

Hasieran, osasun-profesionalen ekipamendurik ezaren eta proba diagnostikorik ezaren arazoa izan zen erakunde horretara jo zuten pertsonak gehien aipatu zuten arazoa. Halaber, osasun-profesionalak beren familiekin bizitzeak dakarren arriskua, eta arazo hori bideratu zen zenbait ostatu eskainiz; izan ere, haien bidez, hala nahi zuten osasun-langileek ez zuten derrigorrez beren etxeetara joan beharrik.

Adineko pertsonak eta mendekotasuna dutenak

Adineko pertsonak eta mendekotasuna dutenak lehenetsuneko taldeak izan dira beti Arartekoaren-

tzat, eta are gehiago, gaur egun hain era gordinetan eragiten dien osasun-krisi honetan, egoitza-baliabideetan bizi direnei bereziki, nahiz eta aparteko neurri asko hartu diren.

Baliabide horien egoeraren bilakaerari buruzko jarraipena etengabe egiten saiatu da Arartekoa. Beren etxeetan bizi diren adineko pertsonen egoerari dagokionez, esku hartu dugu jakiteko zein izan diren etxez etxeko laguntza-zerbitzua ematen duten enpresekiko udalek jarduteko baliatu dituzten protokoloak eta jarraibideak.

Gizarteratzea eta etxerik gabeko pertsonak

Arartekoak izapidetutako espediente askok zerkusia dute diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu, eten edo iraungitzearekin edo gizarte-behar larrialdietarako laguntzak ukatzearekin. Zenbait pertsona, berriz, beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko zain zeuden prestazio ekonomikoak emateko edo haiei eusteko. Espediente horiek gizarte-zaugarritasun egoeran daudenei eragiten die eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurretik dagoeneko beren oinarrizko premiei aurre egiteko arazo handiak zituztenei. Hainbat kasutan, gabezi pertsonalak dituzte, gailu elektronikorik ez dute edo komunikazio elektronikorako trebeziarik ez dute, eta horrek guztiak agerian utzi du zaugarritasun-egoera handienean dauden biztanleengan dagoen arrakala digitala.

Etixerik gabeko pertsoneri gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuek eman diete arreta. Prestatutako zentroetan sartu ezin zuten pertsona batzuen kebaren bat jaso dugu, hain zuzen, jokabide arazoengatik kanporatu dituztelako edo lekurik ez zegoelako.

Hautzaroa eta nerabezaroa

Konfinamendu zorrotza izan da eremu honetan esku-hartzeko eskaera gehien eragin duen gaia. Kezarik ez dugu jaso, baina babesik gabe eta egoitza-baliabideetan hartutako haur eta nerabeen egoerari erreparatu diogu. Etxean tratu txarrak edo abusuak jasaten ari diren haurren kontsultak eta balizko laguntza-eskaerak errazteko hartutako neurrien gainean ere interesa agertu dugu.

Hezkuntza

Arlo honetan, zenbait elkartek egindako kexa nabarmendu behar da, kezkatuta baitaude eskola-jantokiko zerbitzua eteteak egoera zaurgarrian dauden familiengan izan ditzakeen ondorioengatik. Hezkuntza-agintariak gai horrekin oso arduratuta agertu ziren, eta beka-deialdiaren izapidea arindu zuten.

Horrez gain, herritarrek Arartekoari helarazi zioten ikastetxeak itxi izanak ikasleen artean zer desoreka eta desberdintasun sor ditzakeen, denek ezin baitute hezkuntza arloko edukiak modu telematikoa eskuratu.

Segurtasuna

Hainbat kexa jaso dira Ertzaintzak eta udaltzaingoek bide publikoan indarra neurritz kanpo eta arrazoirik gabe erabili zutela salatzeke, eta elkarre batek Bilboko San Frantzisko auzoan poliziaren zirikatze- eta jazarpen-egoera bat zirudiena salatu zuen, baita egoera horrek auzoan gero eta tentsio handiagoa sortzen ari zela ere. Zenbait pertsonak adierazi digute ere, ez daudela ados mugikortasun pertsonalaren mugak betetzeko kontrolean Ertzaintzak eta udaltzaingoek aplikatzen dituzten zenbait irizpiderekin.

Arartekoak eragindako administrazio guztiei eman die kontu horien berri, jakin dezaten eta, horren ondorioz, jardun dezaten.

Pertsonak espetxean

Espetxeen eskumena oraindik Eusko Jaurlaritzari transferitu ez zaion arren, Arartekoak presoen gaineko jarraipen berezia egiten du, egoera zaurgarrian daudela eta. Gainera, Jaurlaritzaren eskumena da espetxeetako osasun arloa, eta, beraz, Osasun Sailari eskatzen diogu eman diezagula osasun-krisi honetan presoen osasun-laguntzaren harira egin-dako eta egin nahi dituen jarduketan berri.

Justizia

Arartekoak guraso bananduen hainbat kontsulta jaso zituen zaintza partekatua gauzateari edo seme-alaben bisita-araubideari buruz. Ildo horretan, Arartekoaren irizpidea hau izan da: berez zaintza partekatua edo bisiten araubidea izanik, eta betiere bi gurasoek koronabirusarekin kutsatzeko arrisku-egoeretan lan egiten ez badute, ez zen arazorik egon behar zaintza partekatua edo bisiten araubidea gauzatzeko; hala, joan-etorrietan ezarritako segurtasun-neurriak hartuko ziren.

Enplegua, ETEak eta autonomoak

Arartekoaren esku hartzeko eremuaren barnean egon ez arren, birusaren eraginari aurre egiteko Estatuko gobernuak hartutako neurri bereziei buruzko kontsultei erantzun diegu. Haien artean, honako hauei buruzkoak nabarmentzen dira: enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetzeaz arduratzen diren Estatuaren mendeko erakundeekin harremanetan jartzeko zailtasunak; konfinamenduaren interpretazioa; telelanaren eskakizuna eta lana eta familia bateragarri egiteko neurriak.

Ingurumena eta hirigintza

Konfinamenduan zehar zenbait pertsonak beren etxebizitzetan jasandako kutsadura akustikoari buruzko kexa batzuk jaso ditugu. Honako hauen ondorioz salatutako eragozpenak ziren: higiezinak berritzeko obrek eragindako gehiegizko zarata, musika-ekipoak gehiegi erabiltzea edo etxebizitzetan lagun egiteko animaliak desegoki eduki izana. Gogora ekarri behar dugu, kasu guztietan, pertsonak atsedean hartzeko duten eskubidea bermatu behar



dela, hau da, etxebizitzaz gozatu behar dela legeria aplikagarriak onartutako gehieneko mugak gainditzen dituen zaratarik atera gabe.

Udalek alor horretan jarduteko nolabaiteko ahalmena dute eta, Udaltzaingoaren bidez, etxebizitzaren barneko zarata-araudien betetze-mailari buruzko egiaztapenak egin ditzakete, zarataren jatorria eta haren gainean jarduteko dituen aukerak zehazte aldera.


Genero-indarkeria

Konfinamenduaren garaian, genero-indarkeriaren biktima diren eta oraindik erasotzaileekin bizi diren emakumeak kolektibo zaugarria da bereziki, izan ere, emakume horien osotasun fisikoa eta morala bereziki arriskuan egon daiteke, isolamendu egoerak erasotzaileen aurkako salaketak jartzea eragotzi baitezake. Datuen arabera, tratu txarregatik salaketa-kopuruak nabarmen behera egin du, baina konfinatutako etxeetako emakume nahiz seme-alaben kontrako indarkeria psikologikoa areagotu izanaren kezka dago (egoera hori salatzea eta egiaztatzea askoz zailagoa da). Horregatik, oso garrantzitsua da herritarrei jakinaraztea ezinbestekoa dela auzokideek jarrera aktiboa eta zaintzailea izatea, kasu hauetan funtsezko laguntza eskaini ahal dutelako. Nolanahi ere, badakigu erakunde eskudunak bereziki erne daudela egoera horiekin.

Etxebizitza

Etxebizitza egokiari buruzko Nazio Batuen errelatore berezi Leilani Farhak pandemiaren hasieran adierazi zuenez, *“etxebizitza koronabirusari aurre egiteko lehenengo defentsa-lerro bihurtu da”*. Orain, inoiz baino gehiago, Arartekoak uste du etxebizitza Espainiako Konstituzioan bizitzarako oinarritzko eskubidearen bermearen osagai bat dela. Ildo horretan dagoeneko bere iritzia adierazi zuen, hau da, utzarazpenak bertan behera uzteko beharra, babes publikoko etxebizitzaren errentaren ordainketa salbuesteko aukera, eta merkatu pribatuko etxebizitzaren errentarientzako diru-laguntzen arauketa autonomiko propioa.

Nolanahi ere, eta behar diren arauzko neurriak hartzen botere publikoek ahalegin handiak egin arren, egiaztatu dugu ez dagoela etxebizitzak edo infraetxe-egoerak partekatzea behartuta dauden familia askoren errealitateari erantzungo dion aurreikuspenik.





COVID-19AREN PANDEMIAK ERAGINDAKO SALBUESPENEZKO EGOERA DELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

COVID-19aren pandemiak eragindako salbuespenezko egoera dela eta, Arartekoak adierazpen instituzional bat egin zuen; bertan, pertsonen, baina batez ere zaugarrienen, oinarrizko eskubideak eta duintasuna bermatzen jarraitu behar dela berretsi zuen.

Horrez gain, euskal herri-administrazioen ahalegina eta haien profesionalena aitortu zuen, bai eta euskal herritarren erresistentzia, elkartasuna nahiz gizalegeko espiritua ere; halaber, boluntario guztiak berariaz aipatu zituen.

Arartekoarentzat, mundu osoan bizitzen ari garen osasun-krisiak eragin du aurrekaririk ez duen askatasuna murriztea, baita gurea bezalako gizarte demokratiko eta askeetan ere. Gure biztanleek, dena den, murrizketa horiei bikain egin die aurre, norberaren eta komunitate osoaren mesedetan.

Euskal administrazioak, eta bereziki osasun-, gizarte-, segurtasun-arloan lan egiten duten pertsonak, eta baita komunitate osorako oinarrizko zerbitzuak bermatzen dituen beste sektore batzuetakoak ere, giza konpromiso oso handia erakusten ari dira, profesionaltasun eta gaitasun handia, hain larria den ezusteko fenomeno bati aurre egiteko.

Arartekoak onartu zuen une larri hauetan hainbat profesional eta herri-administrazio pandemia honen askotariko erronkei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko egiten ari diren lan handia eta, hala, neurri

horretan bideratu zituen euskal agintariei egindako errekerimenduak, larritasun edo premia handieneko arazoei lehentasunez erantzun ahal ziezaien.

Dena den, egoera honetan gehien sufritzen ari direnak izan zituen gogoan: ahulenak edo hauskorrenak direnak, beste pertsona batzuen zaintza behar dutenak, birusari aurre egiteko fisikokiko zaugarrirenak direnak, konfinamendua dela-eta beren osasun fisiko edo mentalean ondorioak jasaten dituztenak, edo babestuta egoteko baldintza materialik edo pertsonalik ez dutenak. Halaber, honako hauek guztiek gure arreta berezia merezi dute: adineko pertsonak; indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak; abusuen biktimak diren haurrak; desgaituak edo mendekotasunean dauden edo beste gaitz batzuk (fisikoak nahiz mentalak) dituzten pertsonak; etxerik gabekoak; egoitza-baliabideetan bizitzen eta lan egiten dutenak; edo espetxean daudenak. Izan ere, horiek guztiek beren oinarrizko eskubideak gauzatzeko duten aukera asko zailtzen da bizi dugun egoera berezi honetan.

Arartekoak azpimarratu du pandemia honek adineko pertsonengan inpaktu handia duela. Birus honek adinekoengan osasun- eta gizarte-mailan zernolako eragin handia duen ikusirik, etorkizunean gogoeta patxadatsua baina sakona egitea komeni dela uste du adinekoak zaintzeko nahi dugun ereduaren gainean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIETAN BAIMENDU GABEKO ISURKETA KUTSATZAILEAK IKUSKATZEKO ETA KONTROLATZEKO PROTOKOLOAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK.

Gomendio orokor honen jatorria ofiziozko jarduketa batean dago, zeina EAEko ibaietan 2018an izandako isurketa kutsatzaileen gertakari zehatzengatik aurkezturiko zenbait salaketen ostean abiarazi baitzen.

Horren izapidetzean zehar, Arartekoak zenbait elkarte ekologisten (Eguzki, Ekologistak Martxan eta Zadorra Bizirik plataforma) balorazioa jaso zuen eta gai horretan eskumena duten administrazioen (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaur-laritzako Segurtasun Saila eta URA Uraren Euskal Agentzia) informazioa bildu zuen. Harremanak izan ziren, era berean, Ertzaintzaren Ingurumen eta Hiri-gintza atalarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko probintzia-fiskaltzetako ingurumen-atalekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan baimentzen ez diren isurketen kasuetan jarraituriko ikuskapen- eta kontrol-lanak bilakaera positiboa islatzen du abiarazitako isurketen inguruko zehapen-espeditenteen kopuruari dagokionez.

Arartekoaren gomendio orokor horrek hobekuntza-proposamenei buruzko oinarri-dokumentu bat izatea erraztu nahi du, ondoren hausnarketa bateratua egiteko EAEko isurketen ingurumen-kontrolleko erakunde eskudunen eta natura-ingurunearen babesean laguntzaile gisa esku hartzen duten elkarte ekologisten artean.

Ebazpen honen helburu nagusia ingurumen-salatzaileren zeregina sustatzea eta kolaboratzaile gisa administrazio onaren betebeharrak ezartzea da, ingurumen-araudia behar bezala betetzen dela bermatzeko.

Bestalde, dokumentuan interesekotzat jo da zehatzeko ahalmena, ingurumen-kalteak ordaintzeko eskatzeko ahalmena baliatzeari dagokionez zenbait betebeharrak eta akzio penala egikaritzen dela bermatzeko betebeharrak jasotzea.

Arartekoaren proposamen nagusiak

Baimenik gabeko isuri kutsatzaileei buruzko ingurumen informazioa eskuratzeko hobekuntzak

- ✓ Informazio publikoa sustatzea.
- ✓ Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea

Baimenik gabeko isuri kutsatzaileen ingurumen kontroleko prozeduran interesa duten pertsonak egindako salaketen izapidetzeetan ezarritako hobekuntzak.

- ✓ Gertakari baten berri ematen duen pertsonaren eskubideak.
- ✓ Ingurumen-salatzaileren eskubideak.
- ✓ Ingurumen-salatzailera babesteko neurriak.
- ✓ Ingurumen-salaketa sustatzeko beharra.
- ✓ Ibaietako ingurumena zaintzeko koordinazio mekanismoak sustatzea.
- ✓ Zehapen eskumena egikaritzeko beharra.
- ✓ Isuriek sortutako ingurumen-kalte larriak ordaintzeko betebeharrak.
- ✓ Zigor-ekintza lehenestearen printzipioa.



HERRITARREI ZUZENDUTAKO ARRETA INDARTZEKO BEHARRA, ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANETAN DITUZTEN ESKUBIDEAK BALIATZEAN KALTEAK SAHESTEKO ETA BAZTERKERIA DIGITALAREN KONTRA BORROKATZEKO NEURRIAK HARTZEKO LARRIALDI EGOERETAN, COVID-19AREN PANDEMIAREN ONDORIOZKO EGOERETAN, BESTEAK BESTE.

Covid-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdia deklaratu ondoren, euskal administrazio gehienek beren administrazio-bulegoak eta funtsezkotzat jotzen ez diren zerbitzuak fisikoki ixtea erabaki zuten, eta herritarrekiko harremana harreman telefoniko edo telematikoetara mugatuta geratu zen.

Egoerak okerrera egin zuen berriro hilabete batzuen buruan eta ondorioak oso larriak dira pertsona zaurgarrienen kolektiboentzako (hau da, mugaketa hauen ondorioz kalte handienak pairatu dituzten kolektiboak); hortaz, beharrezkoa da herritarren arretarako neurriak indartzea.

Gomendio orokor honetan, Arartekoak aztertu du zeintzuk izan diren ahultasun gehien izan dituzten herritarren arretarako eta arreta telematikoko alderdiak eta zeintzuk izango diren hobetze-helburuetarako epe motzean ezarri daitezkeen neurri zuzentzaileak.

Arartekoaren proposamen nagusiak

1. Zehaztea zein oinarritzko zerbitzutan eman behar zaien herritarrei aurrez aurreko arreta, agerraldien eta larrialdi egoeren edo itxialdi-testuinguruan.

2. Gaur egun herritarrei arreta ematen dien langileen kopurua handitzea.


3. Informazio publikora eta orientazio egokira sarbidea izatea bermatzea, zerbitzu publikoez gozatu eta eskubideak eraginkortasunez baliatzeko.

4. Baliabide telematikoak erabiltzen laguntzea herritarrei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako moduan.

5. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharrik gabe erregistroetan agiriak aurkezteko aukera erraztea.

6. Kanal desberdinen bitartez, aldez aurretiko hitzordua kudeatu ahal izatea.

7. Arrakala digitala erasandako pertsonentzako baliabide teknologiko egokiak bultzatzea.



EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KALEAN BIZI DIREN PERTSONEI ARRETA EMATEKO KONFINAMENDUAN ZEHAR EGINDAKO AHALEGINEKIN JARRAITU BEHAR DUTE



Lehen alarma-egoera amaitzear zegoela, Arartekoak dei egin zien administrazio publikoei konfinamenduan egindako ahaleaginekin jarrai zezaten eta kalean bizi diren pertsonen ostatu egokia eta gizarte-arreta izaten jarrai dezaten.

Gomendio orokor honetan, Arartekoak *Etterik gabeko pertsonentzako euskal estrategian (2018-2021)* jasotako konpromisoak eta zuzentarauak gogorarazi ditu, Eusko Jaurlaritzaren agindu bat betez.

Jarraitu honetaz gain, Nazio Batuen errelatore bereziaren **etxebizitza egokia izateko eskubideari** buruzko orientabideak, esate baterako, pandemia baino lehen eta ondoren etxerik gabeko pertsonen ostatua bermatu behar zaiela gomendatzen du.

Azkenik, Arartekoak Covid osteko gizartearen eta gizarte- eta zuzenbide-estatu batean zenbait kolektibok pairatzen duten gizarte-desberdintasunari eta zaugarritasunari aurre egiteko betebeharraren inguruan hausnartu du.

PRESTAZIO EKONOMIKOEN TITULAR IZATEKO JATORRIZKO HERRIALDEAN BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ IZATEAREN ZIURTAGIRIA AURKEZTEKO ESKAKIZUNAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO BEHARRA


Atzerritar askok zailtasunak dituzte euskal administrazio publikoek (nagusiki Lanbidek eta zenbait udalek) kudeatzen dituzten prestazio ekonomikoak eskatzeko orduan jatorrizko herrialdean ondasunik ez dagoela egiaztatzen duen agiria aurkezteko baldintza betetzeko; agiri hori lortzea, kasu batzuetan, oso zaila edo ezinezkoa baita.

Dokumentu hori eskatzen da herritar batzuek zalan-tzan jartzen dutelako, beren esanetan, pertsona etorkinek ondasun higiezinak eta baliabide ekonomikoak izan ditzaketelako beren jatorrizko herrialdeetan eta aldi berean euskal administrazio publikoen prestazio ekonomikoak eska ditzaketelako.

Gomendio orokor honetan, eta esparru juridikoa aztertu ondoren, Arartekoak ondorioztatu du araudiak prestazio ekonomikoak eskatzen dituzten pertsona guztien ondasunak eta baliabide ekonomikoak zenbatestea aurreikusten duela, baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen baldintza betetzen ote den zehazteko, baina, hala ere, araudi honek ez duela horretarako aurkeztu behar den agiri zehatza agintzen.

Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen aipaturiko agiria aurkezteko eskatzearen harira, erakunde honek horren inguruan hausnartu du, ea egokia den halakorik eskatzea eta ea posible den nazioarteko akordio ez-arauemaileak izenpetzea *Nazioarteko Tratatua eta Akordioei buruzko Legea* ezarriz.

Gogoeta eta ondorio horiek indar handiagoa dute koronabirusaren hedapenak eragindako osasun-krisiaren egoeran, horrek areagotu egin baititu jatorrizko herrialdeetan dokumentazioa eskatu eta lortzeko arazoak.



UDALEK BEREN UDALERRIETAKO PRESOAK UDAL-ERROLDAN MANTENTZEKO BETEBEHARRA

Arartekoak hainbat kexa jaso ditu, banakakoak eta espetxe-eremuko hirugarren sektoreko erakundee-nak. Kexa horien arrazoia da presoek eta preso ohiek zailtasunak dituztela eskura ditzaketan prestazio eta zerbitzu publikoak eskuratzeko. Sarritan, arrazoia da ez daudela erroldatuta beren udalerrietan edo, hala badagokio, espetxean bertan.

Espetxean hainbat urte ematen dituzten presoek, familia- eta gizarte-loturak galtzeaz gain, horietako askok jatorrizko udal-errolda galdu ohi dute, nahiz eta beren espetxe-bilakaera positiboa dela-eta erdi-askatasuneko neurriak eskuratu ahal dituzten.

Hori dela eta, beste alderdi batzuen artean, Arartekoak honako hau gomendatu die euskal udalei:

- Beren udalerriko presoek erroldatzeak mantentzea preso horiek espetxean dauden bitartean.
- Legez baja ematea erabaki badaiteke, espetxeko gizarte-zerbitzuei jakinaraztea, presoak espetxea dagoen udalerriko udal-erroldan inskribatu ahal izan dadin eta, hartara, udal-erroldan antzinasuna gal ez dezan.
- Protokolo bat egin dezatela udal-arloek nola jokatu behar duten jakiteko, baldin eta bertako bizilagun bat espetxe-zigorra betetzen ari denaren berri dutenean, eta gizarte-zerbitzuek bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat esku hartzea aurreikusten bada.

GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ETETEAREN ETA AZKENTZEAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Gomendio orokor honetan, gizartetik baztertuta eta egoera zaugarrian dauden pertsonen eta familien eragiten dien arazo larri bat aztertuko dugu.

Beren udaleko gizarte-zerbitzuetan prestazio ekonomikoak eskatzen dituzten eta gizarte-larrialdiko laguntzen eskaerak ukatu egingo zaizkiela jakinarazten zaien pertsonak dira, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen baitituzte; albo batera utzita prestazio horiek kudeatzen dituen erakundeak (hau da, Lanbideak) laguntza horiek eten edo iraungi izana. Dirudienez, ez da kontuan hartzen ezta ere inguruabar hauek: etenaldien iraupena, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskareri ezarritako denboran ez erantzutea, ezta etete-edo iraungitze-ebazpen baten aurrean errekurtsioa ebazteko zain egotea ere.

Arartekoak egiaztatu zuen herritarrek jasotako erantzunak desberdinak zirela bizi ziren udalerrien arabera. Hori dela eta, ofiziozko jarduketara bat abiarazi zuen eta laguntza eskatu zion EAEko udalen ausazko lagin bati (hiru lurralde historikoetako 21 udal, tamaina eta ezaugarri desberdinetakoak). Arabako Foru Aldundiari ere zuzendu zitzaion, Arabako udalerririk guztietan (Gasteizen, Amurrioren eta Laudion izan ezik) baitu eskuordetuta prestazio horiek kudeatzeko eskumena.

Horri esker, hautemandako arazoaren azterketa zehatza eta zorrotza egin ahal izan da, bai ikuspegi juridikotik, bai EAEn udaleko gizarte-zerbitzuek betetzen dituzten funtzioetatik; eta, era berean,

ondorio eta gomendio jakin batzuk planteatu dira udalentzat.

Txostenaren amaieran, EAEko udalei gomendatu zaie, gizarte-larrialdiko laguntzen eskaerak izapidetzean, banan-banan egiazta dezatela benetako premia egoera dagoela eta laguntza horiek egoera horri aurre egiteko egokiak direla, adingabearen interes gorena kontuan hartuta.

Era berean, gizarte-larrialdiko laguntzen eskaera baloratzean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren etendura edo iraungipena eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren iraungipena kontuan ez hartzeko eskatu du.

Arartekoak berriro azpimarratu du koordinazio erraz, arin eta eraginkorra behar dela Udaleko gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren artean, pertsonen, beren gizarte-erantzukizunaren, sektore arteko arreta emateko.

Bukatzeko, udaleko gizarte zerbitzuen zailtasunak aipatu nahi ditu bizirauteko diru-sarrera ekonomikorik edo ostaturik ez duten pertsonen arreta emateko orduan, izan ere, zaila da gizarte esku-hartze funtzioa egikaritu ahal izatea, hain zuzen ere, interakzioarekin, laguntzarekin eta gizartratzearekin lotura handiagoa duena.

Are gehiago Sars-Covid-19 koronabirusak sortutako osasun krisian zehar adosturiko neurrien inaktuaren ostean, izan ere, horrek guztiak, argi utzi baitu oso garrantzitsua dela udal-erakundeetako gizarte zerbitzuak sendoak, arinak eta hurbilekoak izatea, pertsona eta familia zaugarrienei arreta emateko hain zuzen ere.

ERAKUNDE-ADIERAZPENAK

2020an zehar, **erakunde-adierazpenen** bidez, Arartekoa jendaurrean agertu izan da zenbait efemerideren ospakizuna dela-eta euskal gizarteari mezu bat helarazteko interesgarriak diren zenbait gairen inguruan hitz egiten. Jarraian, erakunde-adierazpen nagusien laburpen bat jaso dugu.



MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumeen Nazioarteko Eguna zela-eta, Arartekoak adierazi zuen agenda eta balio feministak belaualdiz belaualdi eraikitzen ari direla, pertsona guztiak, sexua gora-behera, berdintasunean bizi diren mundu batean pentsatu eta hori desiratu zuten emakume askoren ekarpenari esker.

Jasotako ideia horiek gaur egun agenda feministan lehentasun gisa identifikatzen ditugunera arte hazi eta garatu dira. Honako hauek dira aipaturiko lehentasunak: soldata- eta ekonomia-berdintasuna; emakumeen erabateko gizarte-protagonismoa, erabaki politiko eta ekonomikoetan ere; zaintzaren iraultza, zaintzaren gizarte- eta ekonomia-balioa aldarrikatzen duena, bai eta lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza bateratzea, eta emakume eta gizonen erantzunkidetasuna beharra duten pertsonen zaintza bere gain hartzea bezalako ezinbesteko eginkizun horretan; emakumeen duintasunaren eta bizitza eta osotasunaren defentsa, matxismo oldarkor eta hiltzailearen aurrean.

Ondare feminista horrek gizartearentzat dakarren ekarpena azpimarratu zuen, eta adierazi zuen, egun hori dela-eta, beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen artean aliantza sozial, publiko eta pribatuak ehuntzea, genero-berdintasunerako agendatik eratorritako lehentasunak finkatze aldera.



MAIATZAK 9: EUROPAREN EGUNA

2020an, Robert Schuman Frantziako Kanpo Gaietarako Ministroaren Adierazpenaren 70. urterrena ospatu zen, zeina gaur egun gozatzen jarraitzen dugun Europako proiektuaren sortze-momentutzat hartzen baita.

Europar sartu izanak, gure herrialdea munduko demokrazia onekin homologatzeaz gain, gure garapen ekonomikoan, gure azpiegituretan eta gure eskubideetan aurrera egiten lagundu digu. Gaur egun, ez dago zalantzarik ingurumenaren babesa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa edo datuen babesa ez lirakeela berdina izango Europako bultzadarik gabe.

Garai zail hauetan, COVID-19aren testuinguruan, erantzunak Europa du izena. Hori dela eta, Arartekoak Europarekiko uste sendoei eusten die eta gure kontinenteko beste herriaren defendatzaile batzuekiko hartu-emanen hartzen du parte.



EKAÏNAK 5: INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ingurumenaren 2020ko Nazioarteko Egunaren xedea espezieen galera bizkorren eta beren habitaten degradazioaren aurrean ekintzara deitzeko premia izan da bat egitea zen.

Askorentzat, COVID-19aren agerpena paradigma bat da: gizakiak biodibertsitatean egiten duen presioak naturaren oreka delikatu alda dezake, eta patogenoak (koronabirusak barne) hedatzeko baldintzak erraztu ditzake.

Hori dela eta, Arartekoak euskal agintaritzak eta herritarrak ohartarazi zituen lehenbailehen giza-jarduera birkokatze behar gainean, planetan ahalik eta espezie guztien espazioa berreskuratze aldera. Naturaren unea da.





EKAĪNAK 20: ERREFUXIATUEN NAZIOARTEKO EGUNA

Pairatzen ari garen pandemiak giza balio eta bertuterik gizatiarrenak piztu ditu; gizarte bidezkoago, demokratikoago eta humanitarioago baten beharra, alegia. Errefuxiatuek, bazterturiko pertsonak eta migratzaileek ere osasun-babes egokia izan dezakete eta izan behar dute bizi dugun osasun-krisian zehar. Hain une zailetan, aurrera egiten jarraitu behar da, giza-eskubideak erabat errespetatu daitezela eskatzeko eta horiek bazterketarik gabe defendatzeko.

Arartekoak, egun honetan, errefuxiatuen eta asilo-eskatzzaileen duintasuna eta eskubideak babesteko nazioarteko, estatu mailako eta autonomia erkidego mailako sistema juridiko arin eta eraginkorra abian jartzeko beharra azpimarratu du.



EKAĪNAK 28: LGTBI HARROTASUNAREN EGUNA

Urteroko oroitzapen honek aniztasun afektibo-sexuala harrotasunez ospatzeko balio du, bai eta herritarrak eta erakundeak LGTBI pertsonak beren nortasun afektibo-sexuala osotasunean eta gorroto, intolerantziarik edo diskriminaziorik gabe bizi eta gara dezatela bermatzeko garrantziaren inguruan sensibilizatzeko ere.

Beren sexualitatea edo genero-identitatea modu askotara bizi duten pertsonak buruzko gorroto-diskurtsoak oraindik ere entzuten dira gure gizarteetan. Transek, lesbianek eta gayek, zein intersexualek edo hainbat arrazoiengatik edo beren bizitzako une desberdinetan sexu-orientazioari edo genero-identitateari dagokienez ezarritako kanonekin bat ez datozenek, zailtasun bereziak izan ohi dituzte beren lanetan eta gizarte- edo familia-harremanetan eta, batzuetan, bai eta administrazio publikoekiko harremanetan ere, beren identitate dibertsoa askatasunez bizitzeko.

Hori dela eta, Arartekoak gogorarazten du, beste behin, euskal botere publikoek pertsona guztien eta horiek osatzen dituzten taldeen benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak ezabatzen jarraitu behar dutela, esparru guztietan.




AZAROAK 25: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Herralde guztietako datu guztiek argi eta garbi adierazten dute pandemiak eragindako gizarte-isolamenduko eta konfinamenduko politikek funtsezko eragina izan dutela emakumeen bizitzan, eta, bereziki, indarkeria matxistaren ondorioz egunero mehatxatzen diren politketan.


Egun hori dela eta, Arartekoak botere publikoek eskatu die neurri zorrotzagoak har ditzatela, pandemiak emakumeen bizitza pertsonala eta lana uztartzeari dagokionez epe ertain eta luzera izan ditzakeen ondorioei ere aurre egiteko; bai eta, horrekin batera, emakumeen independentzia ekonomikoan izan ditzakeen ondorioei ere aurre egiteko ere, izan ere, independentzia hori baita emakumeen bizi-autonomiarako eta indarkeria matxistaren mehatxuaren aurrean ahalduntzeko funtsezko oinarria.

Emakumeak oinarrizko zutabea dira Covid-19aren kontrako lehen lerroan, zaintzaile, erizain, mediku eta abar diren aldetik. Pertsonen zaintzari eskaintzen dion lanak esker on argia merezi du; eta, era berean, gogorarazten digu beharrezkoa dela zaintzarako benetako galarazten duten oztopoak ezabatzen jarraitu behar dutela, esparru guztietan.



ARGITALPENAK ETA TXOSTENAK

- **Eusko Legebiltzarrarentzako txostena.** Arartekoak azken urtean egindako jarduera jaso du.



- **Errefuxiatuen egoera EAEn.** “Juan San Martín” Giza Eskubideen Bildumaren baitan argitaratua, lan honek gure autonomia erkidegoak gaur egungo esparru juridikoan nazioarteko babes-eskatzaileren harreran eta babesean izan duen zeregina aztertzen du; zeintzuk diren esleituriko legezko eskumenak, garaturiko politika publikoak eta horiek errefuxiatuak hartzeko nazioarteko zuzenbidearen baldintzen estandarrak betetzen dituzten; euskal administrazio publikoek harrera sistema orokorrari egindako ekarpena, bai eta gertatzen ari diren edo gomendagarriak diren es-



perientziak eta jardunbide egokiak, berariaz aipatuz gizarte zibilak sustaturiko elkartasun-ekimenak. Ikerketak 31 ondorio ditu eta hainbat proposamen egiten dira harrera-prozesuan errefuxiatuen egoera hobetzeko. Honako hauei dagozkienak nabarmentzen dira: osasunerako, etxebizitzarako, lan-merkaturako eta hizkuntzaren prestakuntza- eta ikaskuntza-baliabideetarako sarbideari dagozkionak; prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintzak malgutzeko beharri dagozkionak; instituzioen eta gizarte-erakundeen arteko koordinazioaren hobekuntzari dagozkionak; eta harrera kontzeptuaren balizko lege-garapen baten inguruko hausnarketari dagozkionak.

- **Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa EAEn.** Gizakien salerosketa mundu mailako fenomeno kezkarria da, dagoen bidegabekeri handienetako bat, gizakia objektuaren pare jartzen baitu,



salgai huts bihurtzen. Zehatzago esanda, emakume eta neskatoen —biktima nagusiak— salerosketa legez kanpoko merkataritza honen alderdi krudeletako bat da. Ikerlan honek honako hauek biltzen ditu: egoera EAEn, politika publikoak eta biktima horiek prebenitzeko, hautemateko eta babesteko erakunde-, gizarte- eta elkarte-programak. Fenomenoaren ezaugarrietara, daturik eta informaziorik ezaren problematikara, delituaren jazarpena eta biktimen beharrei ematen zaizkien erantzun instituzionala iristen diren 24 ondorio jasotzen ditu. Era berean, 26 proposamen egin dira sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen egoera hobetzeko; horien artean, nabarmentzekoak dira lege-babesa, polizia-ikerketak eta zigor-prozedura, eta eragile publiko eta pribatuaren arteko koordinazioaren hobekuntza.



· **Nahi gabeko gabeko bakardadea. Politika publikoen ereduak eta herritarren konpromisoa.** Argitalpen honek Donostian irailean egindako XXXIX. udako ikastaroko mintegiak eta materialak jasotzen ditu. Ikastaroan egoera horretan dauden pertsonak lagundu, zaindu eta parte hartzeko sarea sortzen laguntzen duten tresna, jardunbide on eta ekimen sozial eta komunitarioak aztertu ziren, gure gizartearen pertsonen interkonexioa hobetzeko.

ARARTEKOAK EUSKARALDIAN HARTZEN DU PARTE ETA PANDEMIA-GARAIAN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK DUTEN GARRANTZIA AZPIMARRATU DU



Euskaraldiaren helburu nagusia da euskararen erabilera sustatzea herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzearen bitartez. Edizio honetan, banaka parte hartzeko aukeraz gain (*ahobizi* edo *belarriprest* rolen bitartez), taldean ere egin ahal izan zen, *ariguneen* bitartez, une oro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten guneak. Euskaraldiaren edizio honetan aktiboki parte hartu zuten Arartekoko langileek 6 *arigune* sortu zituzten, guztira, Arartekoaren hiru bulegoetan. Gure ustez, horrelako ekimenak funtsezkoak dira euskararen normalkuntzarako bidean, eta IALC-ko kide gisa (*International Association of Language Commissioners*-Hizkuntza Ordezkarier Nazioarteko Elkarte), Arartekoak jarduera horren berri eman zuten nazioartean ere.

Era berean, Arartekoak aukera baliatu zuten pandemia garaian eskubide horren urraketengatik zuen kezka adierazteko, pandemia garaian zenbait zerbitzu publikotan arreta euskaraz jasotzeko eskubidea aintzat hartu ez dela jakin ondoren. Eta gogorarazi du, Europako Kontseiluak berak ere ohartarazi zuen bezala, norberak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean hitz egiteko eta arreta jasotzeko eskubidea ezin dela, inola ere, bigarren mailako eskubidetzat jo.

Hizkuntza-eskubideak beste elementu bat dira kalitatezko zerbitzu publiko bat emateko, bereziki osasun-zerbitzuetan, izan ere, azken horietan gertutasuna, konfiantza eta zaintza funtsezkoak baitira. Alde horretatik, Arartekoak nabarmendu du gure komunitate elebidunean, euskaraz nahiz gaztelaniaz komunikatu ahal izateko garrantzia.

OMBUDSMANEN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN BILTZARRA



Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa (FIO), Amerikako Kontinenteko Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko Nazioarteko

Erakundearen Sarearekin lankidetzan, defentsa-erakundeei egindako erasoari eta salbuespenezko egoerei buruzko biltzar bat egin du. Topaketan (Julia Hernández Arartekoaren laguntzaileak hartu zuen parte bertan) erakunde horien egoera eta COVID19aren pandemiaren esparruan jasandako erasoak aztertu ziren. Eztabaida erronketan zein COVID osteko funtsezkoa eskubideak babesteko datozen aukeretan ardaztu zen.

ENYA TOPAKETA



Urrian ENYA (European Network of Young Advisors) proiektuaren urteko Europako topaketa eginzen —kasu honetan *online*—, ENOC- Haurren Defentsarako Europako Sarearen jardueran haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzen duen ekimena. Topaketan defentsa-erakunde desberdinetako neska-mutikoei hartu zuten parte: Andaluzia, Katalunia, Txipre, Grezia, Islandia, Malta, Montenegro, Ipar Irlanda, Norvegia, Eskoziak, Eslovakia, Suedia eta Euskadi. Haurren eta nerabeen begirada politika publikoetan txertatzeko moduari buruzko hausnarketak partekatatu zituzten, haurren eraginari buruzko txostenen bidez.

Euskadiren eta Arartekoaren Nerabeen Kontseiluaren ordezkari gisa, Aitorrek eta Valeriak 2019/2020 ikasturtean gure kontseiluak egindako lanaren ekarpenak eta ondorioak eraman zituzten.



HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

- **Kexa-kopurua:** 2020ko 502 kexa-espedientetan izan dira tartean haurrak eta nerabeak, hau da, Arartekoan aurkezturiko guztizkoaren %19,8. Horietako bat bera ere ez du aurkeztu zuzenean adingabe batek.
- **Arlo materialak:** umeen bizitzako baldintza materialekin eta hezkuntza-sistemeekin lotutako gaiek erreklamazioen %72,1 osatzen dute. Gainerakoak, nagusiki, familientzako laguntza-politikei, babesgabatasun-egoeran dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuei, osasun-sistemari eta eskola-kirolari dagozkien alderdiei buruzkoak dira.
- **Entzuna izateko eskubidea. Informaziorako eskubidea:** pandemiak argi eta garbi erakutsi du gure gizarteetan helduak jartzen direla erdigunean; umeentzako neurri egokienak bilatu dira (beraien

eskubideak bermatzeko, hezkuntzarako, osasunerako, babeserako eta abarrerako eskubidea), baina berriz ere, umeen parte-hartzerik gabe. Entzuna izateko eskubidea baliatzeko, ezinbestekoa da kasuan kasuko gaiari buruzko iritzia izateko informazio nahikoa izatea. Bada, osasun-krisiaren lehenengo asteetan herritarrei ezarritako neurrien berri ematean ez ziren umeak aipatu, nahiz eta kaltetuenetakoak izan. Etxetik atera ezinik egon ziren, ezin ziren eskolara joan, ezin zuten inolako jarduerarik egin espazio publikoetan, instalakuntzetan edo partekatutako espazioetan, ezin ziren lagunekin batu eta jolastu... Eta ondoren, sekula egiaztatu ez zen mezu bat bidali zen, hau da, umeak superkutsatzaileak zirela. Ez zen umei zuzendutako mezurik eman, hizkuntza ulergarrian eta beraien ikuspegia kontuan hartuz.

- **Bizi-maila egokia izateko eskubidea:** Euskadin, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan Sailak emandako informazioaren arabera, diru-sarre-



rak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzak unitateen %30,26k (diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomiko nagusia) 2020ko abenduaren 31n adingabeak zituen kargura. Bizikidetzak unitate horietan dauden ume eta nerabeak 28.180 dira, hau da, Euskadin erroldatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000 biztanleetatik %7. Egiazkotzat jotzen badugu benetako pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguruk arrazoi ezberdinak medio diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestaziorik jasotzen ez duela, kalkula dezakegu Euskadiko ume eta nerabeen %9,33 (ia 38.000 dira) prekaritate ekonomiko eta materialeko egoeran bizi dela eta garatu ahal izateko bizitza-maila egokirako duten eskubidea benetan arriskuan dagoela.

- **Hezkuntzarako eskubidea:** hezkuntza-arloa izan da kaltetuena, Covid-19ari aurre egiteko harturiko neurriengatik; geletan aurrez aurreko jarduerak eten ziren eta, gero, horietara itzuli ziren. Zailtasunak gorabehera, irtenbidea aurkitu diegu jantokietako bekei, ikasleen onarpenari edo eskolako jantoki-zerbitzuari berari eta zenbait ikasleren behar berezien arretari dagozkien alderdiei. Beharbada hezkuntza-arduradunek izan duten karga eta presio handia direla-eta ez zaie behar besteko arretarik jarri Arartekoak azken urteetan aipatu dituen gainerako gaiei; esate baterako, eskola-segregazioaren arazoei aurre egitea.
- **Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea:** Pandemiari aurre egiteko ezarritako neurriek umeei edozein motako indarkeria sufritzeko arriskua gehitzeko aukera (konfinamenduaren testuinguruan ikusezina izan dena, non ikastetxeak itxi diren eta mugimendu askatasuna mugatu den), umeen pobrezia gehitzearekin eta hezkuntza ezberdintasunak areagotzearekin batera, umeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek ohartarazitako gai garrantzitsuenetakoak izan dira. Hala eta guztiz ere, 2020an Arartekoan aurkezturiko erreklamazioek ez dute adierazten adingabeen aurkako indarkeria gehitu denik.
- **Familia bat izateko eskubidea:** pandemiak age-rian utzi duen elementuen artean pertsonen eus-

karri material eta afektibo gisa familiek duten be-tebehar garrantzitsua aipatu behar da, eta, baita familiako kideek lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko dituzten zailtasunak ere. Salbuespenezko egoerak, hala ere, familiaren aniztasuna eta bere bizitza garatzen deneko inguruabar anitzak eta as-koarikoak ikusarazten lagundu du. Familia ugariak bateratzeko zailtasun handiagoak dituztela jakin-razi ziguten, baita nahitaez bete beharreko zenbait neurri bete behar izateak kostu handiagoa duela ere (maskarak erabili beharra, esaterako). Guraso bakarreko familiek irtenbideak eskatu zituzten seme-alaba txikiak zaintzeko gainditu behar zituzten arazo handiei aurre egiteko; bereziki, funtsezko zerbitzuetatik jotako profesionalen kasuan. Familia bananduek zalantzak zituzten zaintza partekatuko kasuetan edo zaintza gabeko gurasoarekin bizi izandako aldietan bizikidetzako guneak txandakatzeko aukerei buruz.

- **Osasunerako eskubidea:** arlo honetan ere, kexa eta kontsulta gehienek Covid-19arekin dute zerikusia. Adingabeei gehien eragin dietenak osasun arloko profesionalak beren familiekin bizitzeak dakarren arriskua dira. Arazo hori, neurri batean behintzat, ostatu alternatiboak eskainita bideratu zen. Era berean, gurasoak edo zaintzaille nagusiak kutsatuta edo ospitaleratuta zeudenean umeei eman beharreko arreta. Era berean, nabarmendu du seme-alabak dituzten eta zailtasun ekonomikoak dituzten pertsona edo familientzat zaila dela maskarak erosi ahal izatea (derrigorrezko neurria); gai hori dela eta Arartekoak ebazpen bat eman du.
- **Jolasteko, aisialdirako eta kirolerako eskubidea:** konfinamenduaren lehenengo asteetan, hainbat erreklamazio jaso genituen indarrean zeuden neurriak arintzeko; kontuan izanda jarduera fisikoak eta jolasak haurren garapenean duten garrantzia. Eskola kirolari dagokionez (2020an ia desagertu egin zena pandemia zela-eta), askotan errepikatzen diren bi gairi buruzko jarduketak bukatu dira: alde batetik, atzerrian jaiotako adingabeek futboleko federazio lizentziak eskuratzeko dituzten zailtasunak, eta, bestetik, eskola orduetatik kanpo kirol entrenamenduak egiteko udal eskoletan egiten duten ordutegi banaketagatik sortzen diren arazoak.



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

Arartekora jo dezakezu

- ▶ Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegi-keriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- ▶ Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- ▶ Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

Zer da Arartekoa?

- ▶ Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- ▶ Erakunde independentea da.
- ▶ Dohain eskaintzen den zerbitzua.

Zer egiten du Arartekoak?

- ▶ Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- ▶ Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- ▶ Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- ▶ Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- ▶ Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

Noiz jo Arartekora?

- ▶ Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- ▶ Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- ▶ Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan

Noiz ez jo Arartekora?

- ▶ Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- ▶ Gaia auzitara eraman denean.

Nola egin kexak?

- ▶ Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia eman.
- ▶ Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- ▶ Internet bidez: www.ararteko.eus
- ▶ Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

Nora joan?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabari

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz

Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua

48001 Bilbao

Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.

20005 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



Deskargatu
2020 urteko
memoriaren
bertsio digitala

